

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### **300 kilowatteko eguzki zentral fotovoltaikoaren jarduera sailkatua instalatzea, Del Valle Aguayo SAK sustatuta**

Jakinarazten da ezen Del Valle Aguayo SAK eskaera egin duela, Juan José Pérez Rambla industria ingeniariak idatzitako proiektuaren arabera, 300 kilowatteko eguzki zentral fotovoltaikoa jartzeko Aguraingo industrialdeko Kañuetas kalean, 1 poligonoko 1616 eta 1617 lurzatietan.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 58.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, baimen horren berri ematen da, jarduera hori jartzeak kalte egiten diola uste duen orok egoki iruditzen zaizkion alegazioak edo iradokizunak egin ahal izan ditzaizkien, 15 egun balioduneko epean, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Dena den, bat etorritik martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hiru-garren xedapen gehigarriak xedatutakoarekin (errege dekretu hori martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldatu zuen), epe hori bertan behera gelditzen da eta hura, epea, aipatutako errege dekretuak edo haren luzapenek indarra galdu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasiko da.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2020ko maiatzaren 12a

*Alkatea*

**ERNESTO SAINZ LANCHARES**